# GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunnon Aldizkaria

Gasteiz, 1993 Abuztua 9. Zka.






Ray-Ban®

**BETAURREKOEK EZ DIZUTE IRUDIA BAKARRIK EMATEN.**
**ORAIN SOINUA ERE BAI**

*MultiOpticasek Ray-Ban ereduko edozer erostean irrati digital bat oparitzen dizu.*
*MultiOpticasen establezimendu batera joatea besterik ez duzu;*
*bertan zerbitzu pertsonalizatua eta ikusmena zaintzeko teknologiarik*
*modernoena aurkituko dituzu.*

**MENDIAOPTIKA**
**DESDE 1856 AZ GERO**
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 ( anbulategi aurrean ) GASTEIZ


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Arabako Foru Aldundiak, Andra Mari Zuriaren Jaiak direla eta, zorionik beroenak eman nahi dizkie arabar guztiei eta, bide batez, hiritar eta gu bisitatzera etorriko diren guztiek gure zaindariaren, Andra Mari Zuriaren omenez, ospatzen diren jaietan beren poza azaldu eta parte hartzeko aukera gal ez dezazuen opa dizue

Jai zoriontsuak eta agur bero bat jaso ezazue Arabako Aldun Nagusiaren partetik

Alberto Ansola Maiztegui




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# NON - ZER


**4.** Jaietan kantari

**6.** Kalea Mintzo

**8.** Celedonen historia

**11.** Iñaki Landa. Elkarrizketa.

**13.** Blusen kuadriletako soslaiak

**21.** Celedon Txiki. Kontu kontari

**24.** Ikusitakoak

**28.** Sukalde txokotik

**30.** Komikia


**...eta gainera erdiko orrialdeetan jaietako egitaraua**



# Agurra

Berriro ere, eta apenas konturatu gabe heldu zaizkigu data berezi hauek, urtero bezala Andra Mari Zuriari eskeintzen dizkiogunak. Egun alaiak datozkigu, gusto guztietarako aukera. Gasteiztar, arabar eta hemen bizi garen guztiok harro gaude gure jaiez.

Abuztuaren 4an arratsaldeko seiretan, urtero bezala, Zeledon jeitsiko da jaiak gure artean pasatzeko asmoz. Guztiok identifikatu gara noizbait kondairaren arabera 1.900. urtean bizi zen pertsonai mitiko honekin. Zeledon pertsona ulerkorra zen, on hutsa,... behar zuenari laguntzeko beti prest, gaurko moduan esatearren: pertsona jatorra.

Bera hartu beharko genuke maizago eredu gisa, are gehiago azaleko garai hauetan, zeinetan diruari eta botereari baino ez zaien baliorik ematen,... norberekoikeria eguneko ogia den garai hauetan.

Zer pentsatuko luke Zeledonek ikusiko bagintu. Ikusiko balu ideologia eta iritzi ezberdintasunagatik, elkarrizketaren bidez konpon litezkeen arrazoiengatik, herri bereko,... familia bereko pertsonak elkar ezin ikusiz dabiltzala?

Zer pentsatuko luke Zeledonek distantzatik gobernatzen gaituzten agintari horietaz, bere herriaren zenbait ohitura eta nortasun adierazgarri -bihotzean sustraturik eta tradizio handiez hornituak- baztertuz.

Jarrai genezake geure buruei galdetzen zer pentsatuko lukeen Zeledonek beste zenbait arlotan, baina irakurleek argi daukate zer pentsatuko lukeen... nahiago nuke urte osoan zehar Zeledon izatea, pentsamenduz, hitzez eta ekintzez...

Lerro hauek idatzi ondoren eta Abuztuaren 4aren zain, ilusioz, denok dugun alaitasun eta dibertzio gogoak aske uzteko opa nahi dizuet, bihotz-bihotzez zorionik handiena. ❑

***Gora Gasteiz***
***Gora Andramari Zuriaren Jaiak.***
***Gora Zeledon!!***
***Eta zorionak denontzat.***

Iñaki Landa
Zeledon






GEU GASTEIZ

*Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria*

**1691 Postakutxa GASTEIZ**

***GEU elkartearen*** *babesarekin*

*5.000 Aleko Tirada*

*Lege-Gordailua VI-582/92*

***Zuzendaria:*** *Joseba Gorostiza* ***Erredakzio-batzordea:*** *Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri* ***Kazetariak:*** *Leire Lopez de Aberasturi, Inaxio Lopez de Arana, Ismael Diaz de, Mendibil, Olatz Irizar* ***Publizitatea:*** *Martin Rezola* ***Maketazioa:*** *Blanka Agiriano, Alex Badillo* ***Argazkilariak:*** *Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzalu, Josu Txabarri* ***Kolaboratzaileak:*** *Agurne Aizpitarte, Asier Garro, Txipi Ormaetxea*

*Inprimategia*
*Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)*

*GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik*





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



# JAIETAN KANTARI



**ABEL ENBEITA**
**Celedon**

Jaiak jaiak ditugu
ta ez da pekatu
Zeledon datorkigu
Aupa! ta dantzatu.
Nahiz eta orainarte
erdaraz bajatu
datorren urterako
euskaraz kantatu.



**ZIGOR ENBEITA**
**Blusa**

Zerbait badute Gasteizko jaiek
berezi eta gozagai.
Lehen eguna edo azkena
bihurtzen dutena alai.
Blusek dakarte martxa guztia
poza ezarriaz nonahi
Blusarik gabe ez da Gasteizik
Eta jaiak ez dira jai.



**XABIER RICO**
**Gau-pasa**

Jaietan jende askotxok maite
du gau-pasaren jarduna
zeren parrandak argitzen baitu
gaueko iluntasuna
Egun argiko loak arinduz
gero mozkorren astuna
bizimodua aldrebestuaz
zaintzen dugu osasuna.



**RIKARDO Gz. de DURANA**
**Jaietako afariak**

Gasteizen ondo afal liteke
andregai ta lagunekin
baina aukera onak non dauden
beharko duzue jakin
Txinbon ez bada El Parralen ta
Herriko Tabernan berdin
jaietan ondo afaldu eta
guzti guztioi on egin.



**OIHANE PEREA**
**Zirkoa eta barrakak**

Txikienek be festetan dute
gozatutzeko aukera
zirkuan irri, barrakan jolas
alde batetik bestera
Hanka luzeak, buru handiak
jokoak ere sobera
ta betetzeko gizarte hontan
ameslarien papera
fantasiaren lagun onenak
doaz amets egitera



**DANI KASTAÑO**
**Celedon-txiki**

Celedon Txiki ere jeisten da
Gasteiztar txikientzako
berentzat ere jaiak baitira
topera probetxatzeko
haurrak diberti zaitezte bapo
zaharragoen antzeko.
Ta gogoratu «La Blanca» jaiez
disfrutatzea ederto.
Derrigor dela fundamentuzko
gasteiztarrak bihurtzeko.

## koplaka

Pum, ai, txupinazo ta
ohiuen tamaina
gero puruen kea
ondoren txanpaina

Lege estraofizial bat
jai onek daduka
«mozkortzen ez denari»,
mila peseta multa

Puruarekin hasi ginaden
baina daukagu seguru
jaiak bukatu eta ondoren
ez dela egongo puru

Gure saltsa denekin
harriturik denak
gasteiztarrak gera ta
parranderoenak

udan euskaraz
arin-arin
ikastaro trinkoak eta barnetegiak
aek
Peru kalea, 8 Tfnoa: 22 60 50 • Jose Mardones kalea, 8 Tfnoa: 26 35 40



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ONDO PASA




ELKAR

FAGOR

SUKALDEKO HALTZARIAK

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ

ALBENIZ
MOBILIARIO



Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ...eta jaietan zer?

**Urte osoan zehar lanean madarikatzen aritu ondoren uda parteko oporrak gogo ezin hobearekin hartu ditugu. Batzuk Gasteiztik alde egin eta denboralditxo batean ondo lasai pasatzeko aprobetxatzen dituzte, beste batzuk, ordea, jaietan murgildu eta ahalik giro alaienean igarotzen dituzte. Gu, azken hauengana zuzendu gara eta jaietan zer egin ohi duten galdetu diegu.**

***Hemen gelditzen al zara jaietan? Zer egin ohi duzu?***



## Alberto Belar (Langabetua)

1.-Bai eta egunero ateratzen naiz.

2.-Denek egiten dutena egiten dudala uste dut, batez ere asko edan; egunez lo egin eta gauez parrandan ibili. Kontzertuak gustoko ditut eta baita txoznetan ibiltzea ere. Honetaz gain ez dakit zer dagoen, egitaraua ez baitut ikusi ere egiten eta zezenketara joatea, burutik pasa ere ez!



## Amaia Garzia. (Ikaslea)

1.-Iaz egon nintzen lehendabizikoz eta aurten bigarren aldiz, besterik ez.

2.-Gehien bat Alde Zaharretik ibiltzen ginen: dantzatzen kalean, berbenetara noizean behin buelta bat eta txoznetan noiz behinka; batez ere egunez ibiltzen baikara. Jaiak pobre xamarrak iru-ditzen zaizkit, ez dago aktibitate gehiegirik eta aukeratzeko ere gauza gutxi, egunero gauza bera egiten da. Gehien gustatzen zaidana Celedonen jaitsiera, eta dantzatzea noski!



## Isabel Garzia (Ezinduen Begiralea)

1.-Bai, lehenengo egunetan soilik gelditzen naiz.

2.-Ohizko bizitza egiten dut ez naizelako parrandazalea. Aste bukaera normal batean baino zertxobait gehixeago ateratzen naiz; gauetan dantzaldira joaten naiz, besterik ez. Giro ona egoten da baina urtetik urtera jendea gutxitzen ari dela iruditzen zait.

GARNICA
FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK
Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## Blanca Fernandez (Zerbitzaria)

1.-Bai, baina lan egiteko, zoritxarrez.

2.-Egunez lo egiten dut eta gauean lanetik ateratzean txoznetan pote batzuk hartzen ditut. Lehenengo lanik egiten ez nuenean ere, egunez lo egiten nuen eta gauez parranda. Garai haietan giro hobea egoten zela uste dut, orain apal xamarra ikusten dut. Ea aurten berpizten diren!



## Jon eta Gaizka Fernandez de Mendia. (Ikasleak)

1.-Bai, gehienetan egoten gara baina batzutan ez gara ateratzen.

2.-Gehien gustatzen zaidana barrakak dira, batez ere autotxokeak. Hala ere, ez gara nahi adina ibiltzen eta gogokin gelditzen gara. Beste batzutan afaltzera joaten gara gurasoekin eta gero dantzaldira lehengusu eta osabarekin, hor dantza egiten dugu eta baita korrika ibili ere. Noiz behinka zekorrak ikustera ere joaten gara.



## Javier Meidavilla (Ikaslea)

1.-Egoten naiz baina normalean zerbitzari ihardun behar izaten dut.

2.-Iaz gauez lan egiten nuen eta egunez Zekorrak ikustera, txoznetara... eta lo apenas. Lehenengo egunak ditut gogoko, giro hoberena hasieran izaten da, kanpoko jendea ere orduantxe hurbiltzen da, azkenerako dexente moteltzen da giroa. Aukeratzeko haina gauza badaude; Bilbokoak antzekoak dira. Festak politak direla uste dut.



## Pablo J.B. (Jubilatua)

1.-Ez banaute bidaltzen hemen egongo naiz. Santiago egunetik bukatu arte, oso osorik.

2.-Ahal dudana. Dianak ikusi, zezenketara joan; kaleko giroa gustatzen zait gehien. Gauez dirurik badut andrearekin afaltzera joaten naiz eta ondoren dantzaldira, ordubiak, hirurak edo laurak arte. Nire garaian giro hobea zen, 22, 30 edo 60 urteko pertsonak kuadrila berean ibiltzen ginen. Orain ez. Orain jendeak ikasketa gehiago dauka baina kultura gutxiago . Halere, jaiak oso ondo daude.



## Karmen (Jubilatua)

1.-Bai gelditzen naiz. Ez didate lo egiten uzten erdian bizi naizelako. Dena den, jendeak ondo pasa behar duela, guk gaztetan halaxe egiten genuen ere.

2.-Goizeko eta arratsaldeko errosario, prozesiora joaten naiz. Andra Mari Zuria bisitatzera joaten naiz. Blusak kalean ikustea ere gustokoa izaten dut. Garai batean antzerkira ere joaten nintzen baina orain ez dut atsegin, barraketara ere joaten naiz. Gauean denok etxean elkartzen gara afaltzeko.

azkarprint
lehen fasprint
Cercas Bajas, 4
Tfnoa: 27 92 51
Fax: 25 42 10
Inprenta zure zerbitzura

• Eskutxartelak
• Fakturak
• Eranskailuak
• Gonbite txartelak
• Aldizkariak
• Txartelak

Zerbitzu bereziak:
• Paper birtziklatua eta ekologikoa
• FOTOKOPIAK KOLORETAN
• Kamisetetan estanpaketak



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Celedon: 36 urteko historia



**Milaka gasteiztarrek beteko dute Andramari Zuriaren plaza abuztuaren 4ean urtero bezala Celedoni lenen agurra emateko asmoz. Baina nor da Celedon eta noiztik ekartzen ditu jaiak Gasteizera?**

EUSKARAZ

- **2** eta **5 ordu** Uztailean eta Irailean
- **Urrats Guztiak**
- **Barnetegiak:** uztaila, abuztua eta Irailean
- **Gazteentzat ikastaroak** uztailean

**GASTEIZ** euskaltegia
Errege katolikoak, 15-C.
Tfnoa: 28 89 22
**PINTO** euskaltegia
Pintoreria 74.
Tfnoa: 28 97 80
**ZALDIARAN** euskaltegia
Zaldiaran Plaza, 16.
Tfnoa: 24 49 05

ika



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Celedon Arabako historiako pertsonaia mitikoa dela esan behar da lehenbizi eta tradizioari jarraiki Zalduondoko baserritar hau da urtero Gasteizera jaiak ekartzen duen aztia. Jakina denez zeruetatik etortzen da Celedon, jaietan Gasteizen zeruan baino gustorago sentitzen delako.

**"Zalduondoko baserritarraren lehen bidaia San Miguel-eko teilatu gainean amaitu zen"**

Baina 1957. urteko jaiak arte ez zen mitoa gorpuztu. Urte horretan lagun talde bat elkartu zen Celedonen leienda bete eta Zalduondoko baserritarra Gasteizera ekartzeko. Lehen arazoa ekartzeko modua izan zen eta eagun guztiok ezagutzen dugun modua bururatu aurretik ideia pila bat mamitu zuen Mariano Lopez de Gereñu, Luis Mª Sanchez Iñigo, Javier Azpiazu, Jesus Jimenez, Amado Lopez de Ipiña, Jose Luis Madinabeitia, Jesus Perez de San Roman, Jose Luis Isasi eta Jose Mª Sedanoren lagun taldeak. Gaur egun harrigarria dirudien arren lehenengo asmoa Celedon globoen bidez airaeratzea izan zen eta helikoptero bat alokatzea ere proposatu zuen norbaitek.

Azkenean erarik egokiena San Migueletik Udaletxeraino kable bat luzatzea izango zela erabaki zuten. «Oso denbora gutxi geneukanez Jesus Larreak eskaini zigun kablearekin prestatu genuen guztia» gogoratzen du Luis Mari Sanchezek.

Horrela inori ezer esan gabe arratsaldeko seiretan txupinazoapiztu zenean Celedonek San Migueletik lehen bidea egiteari ekin zion Plaza Berrian bildutakoen artean izugarrizko arrakasta lortuz.

Hala ere, azken orduan lortutako kablea ez zen antza behar bezain gogorra eta Zalduondoko baserritarraren lehen bidaia San Migueleko teilatuen gainean amaitu zen. «Celedonen bidaia hasi zenerako Jose Luis Isasi eta biok Udaletxeko teilatuan geunden ezkutaturik eta erori arren Isasi purua piztu, aterkina zabaldu eta bildutakoak agurtzera atera zen» azaldu digu Jesus Jimenezek, Txatok.




## Hobetu nahian, sua

Bederatzi blusek izandako ideia sekulako harrera ona izan zuen Gasteizen eta hurrengo urtean denbora gehiagorekin prestatzeko konpromezua hartu zuten nahiz eta beren lehenengo helburua ekitaldi bera urtero egitea ez izan.

Eta horrela izan zen, 1958. urtean guztia hobeto prestatu zuten eta Celedonen miato zaharra ahalik eta zehatzen gorpuzten saiatu ziren. Mitoaren istorioak dioenez Zalduondoko baserritarra hodei baten erditik agertzen da lurrera datorrenean eta lagun talde honek hodeia ere egin nahi izan zuen. Horretarako soldaduzka egiten ari zen Amado Lopez de Ipiñak ke pote batzuk lortu zituen koarteletik.

Lehenengo urtean ez bezala hari guztiak lotzen saiatu ziren blusa hauek: «bai, ke handia sortu behar zenez suhiltzaileengana joan ginen guztia kontrolpean geneukala eta ez kezkatzeko esateko».

Aurreikusi bezala Celedon hodei batetik irten zen Plaza Berrian zegoen jendearen algara sortuz. Baina zerbaitek huts egin zuen eta ke poteak San Migueleko teilatuaren gainera erori ziren. «Teilatuan sua piztu zenean suhiltzaileei deika hasi ginen noski, baina hauek guztia adar jotze hutsa zela uste zuten eta ez ziguten kasurik egiten. Susto itzela hartu genuen» gogoratu du Luis Mari Sanchezek.

Celedonen jeitsieraren lehen bultzatzaile hauek bere ideia aurrera eramateko orduan argitu behar izan zuten beste puntu bat Celedon nola eta nork ordezkatuko zuen erabakitzea izan zen.

Bederatzi lagun hauetatik lau Los timidos blusa koadrilakoak ziren eta hauek

**"Lan itzela egin dugula uste du jendeak. Egia esan, gure helburu bakarra ondo pasatzea izan zen"**






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Pepito deitzen zen panpin bat eraman ohi zuten beren parrandetan. Horregatik lehen jeitsierarako panpin bat behar izan zutenean Pepito aukeratu zuten zalantza handirik gabe.

Urtero bi Celedon behar direnez, kartoizkoa eta haragizkoa, Isasi izan zen Pepitorekin batera Celedon, 1957tik 1979 arte hain zuzen. «Zergatik? Baserritak itxura hobekien ematen zuena bera zelako, gizon indartsua, sudur handia...».

> **"Hasiera batean, Plaza Berrira jeisten zen Celedon"**

## Parranda batetarako sortutako ideia

«Jendeak lan itzela egin genuela uste du baina, egia esan, gure helburu bakarra ondo pasatzea izan zen eta guztia hiru egunetan prestatu genuen» azaltzen du Txatok.

Edonola ere Celedonen jeitsiera Andramari Zuriaren jaietako ekitaldirik jendetsuena bihurtu da eta aipaturiko bederatzi gizonei Urrezko Celedon saria irabazteko balio izan die, "eta hori bai ezustean hartu genuela gure ustez merezimendu handirik ez bait dugu egin" azpimarratzen dute.

1957ko jaiak hasi zirenean inork ez zuen uste ekitaldi hori urtero errepikatuko zela urtez urte arrakasta handiagoa lortuz. Horregatik 36 urte hauetan gauzak zenbat aldatzen diren aipatzen dute Celedonen gorpuzkera burutu zuten bederatzi gizonek.

Izan ere, Gasteizen abuztuaren 4 guztiak berdinak direla ematen duen arren ekitaldi hau asko aldatu da. Lehen Plaza Berrira jeisten zen Zalduondoko baserritarra eta ez Andramari Zuriaren Plazara eta panpina ez zen jendearen gainetik pasatzen.

Nola edo hala aurten ere zeruetatik ekarriko dizkigu jaiak Celedonek, ongi etorria! ❑



## Kontu kontari

- ❑ Zalduendoko baserritarra 1.957. urteko jaietan jeitsi zen lehendabiziko aldiz
- ❑ Lehengo bidaian Celedon panpina San Migueleko teilatuan bukatu zen.
- ❑ 1.971. urtean Celedoni brusa aldatu zioten. Beltza zena txuri-urdin kuadroduna jarriz.
- ❑ Enparantza berrira guztira 19 aldiz jeitsi zen.
- ❑ Celedonen papera egin dutenak:
  - 1.957.tik 1.979.ra J. Luis Isasi (22 aldiz)
  - 1.976. urtean J. Luis Oribe (behin)
  - 1.980tik 1.992.ra Iñaki Landa (13 aldiz)
- ❑ Jeitsieraren lekua: (San Miguel dorretik)
  - 1.957.tik 1.970.ra Enparantza berrira
  - 1.971.tik 1.992ra Andra Mari Zuriaren plazara
- ❑ Andra Mari Zuriaren plazan:
  - Hueto etxera: 5 aldiz
  - Arbina etxera: 9 aldiz
  - Aldabe etxera: 3 aldiz
  - Irazu etxera: 4 aldiz
- ❑ Aurten Celedonaren jaitsie hogeita hamaseigarrena izango da

MOBILIARIO kide
apaindura
Cercas Bajas, 27 • Tfnoa: 14 41 95 • 01008 - GASTEIZ-

LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA PAPERDENDA
STUDY
STUDY — Foruak, 12 ☎ 14 37 80
STUDY berriak — Florida, 29 ☎ 14 50 94
STUDY — Lobaina, 1 ☎ 14 19 50



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Iñaki Landa:
## «Guztiok izan behar dugu Celedon»



**Iñaki Landa, Celedon bezalaxe, baserritarra da. Apaltasunez beteriko gizon honek ate zabalik hartu gintuen bere etxean. Kasu honetan elkarrizketaren mahai gainean ez zegoen magnetofoia bakarrik, Eharikoak jana eta edaria atera baitzizkigun, bitartean bere sema-alaba txikiek atsedenik gabe ekiten zioten euskarari.**

**GEU GASTEIZ:** Zeledon baserritar parrandazale bat zen. Baina Zalduondokoa, Murgiakoa ala Eharikoa?

**IÑAKI LANDA:** Ja, ja... Hasieratik jo eta ke. Nik uste dut Celedon Zalduendokoa, Araiakoa, Eharikoa... dela, Araba osokoa eta Gasteizkoa. Guztiok izan behar dugu Celedon. Jai egun hauetan lerdakeriak, egunerokoa ahaztu beharra daukagu.

**G.G.:** Andra Mari Zuria plazara irtetzeko ordua heltzen denean, urduri egoten al zara?

**I.L.:** Bai, urteek, zalantzarik gabe, lasaitasuna ematen dute, baina plazara atera baino minutu batzuk lehenago oso urduri egoten naiz. Enparantzan zaudenean, ez daukazu pentsatzeko astirik, Celedon zarela suposatzen duzu.

**G.G.:** Zein da pertsonaiaren alde txarra?

**I.L.:** Behin baino gehiagotan une txarrak igaro ditut, agian nire izaera ez delako jendearen aurrean egoteko horietakoa. Pertsonaiak erantzukizuna ematen dizu.

**G.G.:** Eta alde ona?

**I.L.:** Jende askok ezagutzen zaitu. Halere, honek ere batzutan nekatzen du. Ordaindu beharreko zerga da.

**G.G.:** Hamalau urteetan zein izan da gertatu zaizun egoerarik bitxiena?

**I.L.:** Gauza bitxi-bitxiak ez dira gertatzen. Esaterako, orain urte batzuk zahatoa lapurtu zidaten. San Migelerako bidean nihoanean, zahatoa ez nuela konturatu nintzen. Egoera arruntak dira.

Ederki
argazki estudioa
Olagibel, 64
Tlefonoa 27 50 85

CEROS
POSTER ETA LAMINAK
MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK
Santiago kalea, 39
☎ 26 09 82



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**G.G.:** Gasteizko jaiek utzi dizuten oroipenik txarrena?

**I.L.:** 1976an Martxoaren hirugarrenean gertatutakoaren ondorioz jaiak ez ziren ospatu. Isasik ez zuen Celedon izan nahi eta Oribe jaitsi zen. Andra Mari Zuria Plaza hutsik zegoen. Batzuek txalo, beste batzuk txistuka. Hura gogora izan zen. Gogoratzen dut Oribe beldurturik jaisten zela.

**G.G.:** Eta onena?

**I.L.:** Ez dakit. Ia urtero gauza politak gertatzen zaizkizu. Niri adineko emakumeek hunkitzen zaizkit. 17 urte nituela blusa jantzi nuen lehen aldiz eta niretzat Gasteizko jaiak oso bereziak izan dira betidanik.

**G.G.:** 80ko hamarkadaren hasieran 5.000 blusa irtetzen ziren, gaur egun kopurua 2.000etakoa da. Nola azal dezakezu aldaketa hau?

**I.L:** Garai haietan boom bat egon zen bizitzaren arlo guztietan. Jende guztiak zeukan lan, eta ondorioz dirua. Diktadura bukatzean, ilusio asko genituen. Lau txisturekin kristoren parranda antolatzen genuen. Esatea tristea bada ere, faktore ekonomiak zeresan handirik dauka honetan. Nagusiak esan badizu Irailean ez dakiela zer gertatuko den, agian guztiok etxera joan beharko dugula... Oso zaila da hau jaietan ahaztea. Han, hemen eta orain gertatzen da. Beldur pixka bat dago, eta honek jendea balaztatzen du. Familiarik badaukazu, latza da. Lehen 15 urtetako mutilek aprendiz bezala egiten zuten lan edozein lekutan eta etxe guztietan dirua sartzen zen. Blusa izateko dirua behar duzu. Bestetik, blusak eta euskaldun usaintzen duen edozer ekimen erretzen ari dira.

**G.G.:** Zure eritziz, jaiak gasteiztarrek dituzten kexak eta arazoak plazaratzeko une egokia al dira?.

**I.L.:** Nik uste dut blusek pankarta lehiaketa bata antolatu behar dutela. Pankartek jaien saltsa dute. Nire garaian pankartak argiak ziren, egun aldiz, batzuek behintzat ez dute ezer esaten, irudimen falta ikusten diet. Blusek gaizki agintzen duena, lapurra pankarta horietan margotu behar dituzte. Pankartek gizarte gasteiztarraren ispilua izan behar dute.

**G.G.:** Nola gogoratzen ditu Iñaki Landak bere haurtzaroko jaiak?

**I.L.:** Ezberdinak. Orain dela 30 urte Eharitik Gasteizera askoz gutxiago etortzen zen. Gobeora, Astegietara, Apezgaitegira, San Martin auzoko mutilekin elkar jotzera gindoazen, baina Gasteizeraino gutxitan. Orduan Gasteizera Santiago egunean joaten ginen, makila erosten genuen, barraketara joaten ginen... Ohiturari jarraituz, baserritar guztiek ibilaldia bera egiten genuen. Andra Mari Zuria egunean alkondara, prakak eta zapatak berriak ziren beti. Oraindik eultzitu behar bagenuen, guretzat jaiak hortxe amaitzen ziren.

**G.G.:** Gasteizko jaiek herri harrera galdu dute?.

**I.L:** Ez. Nire eritziz jaiak ez dira aldatu. Hori bai, gogoak galdu ditugu. Hemen lehen diruaz aipatu dugunak zeresanik du berriz. Guk eraikitako gizartea krisialdian murgilduta dago une honetan.

**G.G.:** "Okerrak" laguntaldean irtetzen jarraitzen duzu?

**I.L.:** Ez. Niretzat laguntalde horrek esanahi handia du, baina dagoeneko ez da berdina. 42 urte ditut eta 20 urtetako gazteekin lekuz kanpo ikusten dut neure burua. Hori bai, Andra Mari Zuria egunean haiekin bazkaldu eta afaltzen dut. Nostalgia sentitzen dut, parranda asko gustatu zait eta.

**G.G.:** Orduan nola bizi dituzu jaiak?

**I.L.:** Blusaz janzten naiz. Egun batean laguntaldearekin zoaz, beste batean lagunekin gure garaiak gogoratuz, beste batean emaztearekin... Egunero hortik afaltzera goaz, zorte handia daukagu, aiton-amonak seme-alabekin geratzen baitira. Egun batzu beranduago, beste batzuk lehenago, baina urtero hortik.

**G.G.:** Nola ikusten dituzu gaur egungo blusa kuadrilak?

**I.L.:** Kalearen ispilua dira. Triste daude gizartea bera bezalaxe. Halabaina, jaiaren alaitasuna eta motorea izaten jarraitzen dute. ❑

HEGOALDE
euskaltegia
Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ

zalu
FOTOKOPIAK
Berehalaxe!!
Prado 20
Tfnoa: 945-288248 • Faxa: 945-253291



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Badatoz Blusak






## Los Bainas

| | |
|---|---|
| **Jaiotze-data:** | 1950 urtean (43 urte ateratzen) |
| **Jazkera:** | Kuadrotxo txuri-urdineko brusa, praka marraduna, gerriko beltza eta arrantzale zapia (duela10 urte gerriko eta zapia gorriak zeramatzaten) |
| **Nola Sortu:** | Flor de la Rioja tabernan bildu eta San ferminetara joaten zen lagun talde baten bitartez. Izena, kuadrilako kide bat «un poco baina» zelako sortu zen. Kuadrila honen arima Pelayo zena izan da. |
| **Musika:** | 20 urte daramate txaranga berarekin. Partaideak Orduña, Laudio eta Bilbokoak dira. Tronpetarien lana, benetan ikusgarria. |
| **Partaideak:** | 112 (horietatik 50 23 urte baino gutxiagokoak, gainontzekoak 30-50 urte bitartekoak) |
| **Kuota:** | 15.000 ptza |

den-dan
haltzariak
Gerardo Armesto, 2 • Tfnoa: 24 38 49
01008 GASTEIZ

ditare
MIHISEDENDA
UME ETA EMAKUMEENTZAKO
LENTZERIA ETA BARRUKO ARROPAK
Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## Los desiguales

**Jaiotze-data:** 1954. Auten 40 urte betetzen dute

**Jazkera:** Blusa urdina, praka marradunak, gerriko eta zapia gorriak.

**Nola Sortu:** Lagun talde batzuk elkartu ziren jaiak elkarrekin pasatzeko asmotan. Santa Isabel Kanposantuko apaizaren laguntzaz.

**Musika:** Legutioko txistulariak

**Partaideak:** 65 ( 20 eta 50 urte bitartekoak)

**Kuota:**



## Los Martinikos

**Jaiotze-data:** 1.955. 1.988.urtean bersortu zen

**Jazkera:** Brusa txuri-urdin kuadroduna, praka marradunak, gerriko beltza eta zapi kuadroduna. Blusaren atzekaldean «debekatua» seinalea daramate

**Nola Sortu:** San Martin auzoko lagun talde bat, lehenbiziko urtean. Hortik datorkio izena. Diskoteka batean egindako parranda baten bitarten bersortu zen.

**Musika:** Errenteriako «Los viciosos del son» txaranga.

**Partaideak:** 45 (12 eta 44 urte bitartekoak)

**Kuota:** 25.000 ptza



## Los silenciosos

**Jaiotze-data:** 1.958. urtean sortua

**Jazkera:** Blusa beltza, praka marradunak, gerriko eta zapi gorria

**Nola Sortu:** Felipe tabernan elkartzen zen lagun talde izan zen kuadrila honen sorrera.

**Musika:** fanfarrea

**Partaideak:** 89 ( 14 eta 55 urte bitartekoak)

**Kuota:** 20.000 ptza

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## Los Biznietos



**Jaiotze-data:** 1.966. urtean sortua.

**Jazkera:** Blusa beltza, praka marradunak, gerriko eta zapi gorriak.

**Nola Sortu:** Poteozale kuadrila baten bitartez

**Musika:** Haiek sortutako fanfarrea. (izen berbera daramana)

**Partaideak:** 40 (35 eta 45 urte bitartekoak)

**Kuota:**

## Gazteluak



**Jaiotze-data:** 1.972. urtean sortua.

**Jazkera:** Blusa txuri-urdin kuadraduna, praka marradunak, gerriko beltza eta zapia kuadraduna

**Nola Sortu:** Aritznabarra auzoan, bertako talde batek bultzaturik.

**Musika:** Bilboko «Jupiter» fanfarrea

**Partaideak:** 120 (18 eta 35 urte bitartekoak)

**Kuota:** 13.000 ptza

## Gasteiztarrak



**Jaiotze-data:** 1.975. urtean

**Jazkera:** Blusa txuri urdin kuadroduna, praka arrantzaleak, gerriko beltza eta zapi kuadroduna

**Nola Sortu:** Lagun talde batek blusa kuadrila egitea erabaki zuen. Normalean hiriko erdialdean poteoan ibiltzen ziren.

**Musika:** Fanfarrea

**Partaideak:** 40 inguru

**Kuota:**

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia
Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

AZOKA
deportivos
Zure kirol- oinetakoak
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## Ustargi



**Jaiotze-data:** 1.977. urtean

**Jazkera:** Arabar Blusa, praka marradunak, gerriko beltza eta zapi kuadroduna.

**Nola Sortu:** Bi kuadrilen elkarketaren ondorioz: «San Viator» ikastetxekoak bata eta Scaut talde batekoak bestea.

**Musika:** Kuadrilako bertako txistulariak

**Partaideak:** 42 (25 eta 34 urte bitartekoak)

**Kuota:**

## Txirrita



**Jaiotze-data:** 1.977. urtean sortua

**Jazkera:** Blusa txuri-urdin kuadroduna. Praka marradunak. gerriko beltza eta zapi kuadroduna.

**Nola Sortu:** Abertzale talde batek sortu zuen. Izena gudari erori baten omenez jarri zioten

**Musika:** Orain arte kuadrilako txistulariekin ibili badira ere, aurten Lesakako «Tantirumairu» fanfarrearekin ibiliko dira

**Partaideak:** 80 (17 eta 40 urte bitartekoak)

**Kuota:** 20.000 ptza

## Okerrak



**Jaiotze-data:** 1.977. urtean sortua

**Jazkera:** Blusa urdin iluna, praka marradunak, gerriko gorria eta zapi kuadraduna

**Nola Sortu:** Ehariko lagun talde batek sortua. Eurek diotenez, jaietan elkarrekin meriendatzeko gogoak zituzten.

**Musika:** «Los hijos de Bikarregi» fanfarrea

**Partaideak:** 70 (20 eta 35 urte bitartekoak)

**Kuota:**

MUGA Noresta
MENDIA, ESKALADA ETA BIDAIETARAKO MATERIALEA.
LIBURUDENDA ESPEZIALIZATUA.
Plaza Nueva, 3
Tfnoa: 14 63 25 • 23 05 57
GASTEIZ
Paulino Caballero, 41
Tfnoa: 15 14 26
IRUÑEA

Huluma
MASAIA - QUIROMASAIA
*Kote Zubizarreta*
Olagibel, 20 •Telefonoa 25 92 06



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZ JAIETAN
## Egunez egun





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ABUZTUAK 4 ASTEAZKENA



### 7,30etan

**MATXETE PLAZAN:**
Indarra dantza taldea

## gauez

### 10etan

**ERDIALDEKO KALEETAN:**
Farolen prozesioa.

### 11etan

**MATXETE PLAZAN:**
Trikitixa: Maixa eta Itziar.

### 11,30etan

**OLAGIBEL KALEAN:**
Zezensuzkoa eta, ondoren, musika-animazioa, Lantziego eta Biasteriko banden eta Biotzatarrak eta Biznietos de Celedon txarangen eskutik.

**PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN:**
Gaujaia, Koxkor taldearekin.

**ARKAKO PLAZAN:**
Gaujaia, Basakabi taldearekin.
12etan

**FORUEN PLAZAN:**
Platero y Tú taldearen kontzertua.

Platero y tu Gaueko 12etan Foru Plazan

Jazz: Goialde Senperena 7etan Arkako plazan

### 12,30etan:

**ENPARANTZA BERRIAN:**
Nueva Etapa orkestra.

### 11,30etatik goizeko 2,30etara

Musika kalean, Biotzatarrak eta Biznietos de Celedon txarangekin, kale hauetan barrena: San Frantzisko aldapa, Andra Mari Zuriaren plaza, Mateo Moraza, Agirre Lehendakaria, San Prudentzio, San Antonio, Foruak, Independentzia eta Dato.

## Arratsaldez

### 6etan

**ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN:**
93ko jaiei hasiera emango dien suziriaren jaurtiketa eta Celedonen jaitsiera.

### 6,30etan

**SANTA BARBARA PLAZAN:**
Musika-animazioa, Biasteriko bandaren eskutik.

**AMARIKA PLAZAN:**
Musika-animazioa, Lantziegoko bandaren eskutik.

**ERDIALDEAN:**
Musika-animazioa, Indarra, Ezberdinak, Erletxo, Zurraldi, Eltziego eta Gufa gaitajole bandekin.

### 6,45etan

**UDALETXEAN, AGIRRE LEHENDAKARIA KALEAN, POSTA KALEAN ETA ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN BARRENA:**
Udal Komitiba, erraldoi eta buruhandien segizioarekin. Lore eskaintza Andra Mari Zuriaren aurrean, Bezperak, San Migel parrokian, eta Salbea.

### 7etan

**PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN PLAZAN:**
Dantzaldia, Koxkor taldearen eskutik.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ABUZTUAK 5 OSTEGUNA

GASTEIZ JAIETAN

## Goizez

### 7etan

**Ertaroko hirigunean eta Andra Mari Zuriaren plazan:**
Egunsentiko Errosarioa eta Prozesioa.

### 9etan

**Enparantza Berrian:**
Dianak, Udal Musika Bandak, Udal Txistulari Bandak, Aldundiko Txistulari Bandak, Biasteriko Bandak, Lantziegoko Bandak eta gaitajole bandek interpretaturik.
Ondoren, Udal Musika Bandak ibilaldia burutuko du kale hauetan barrena: Posta, Loma Jenerala, San Antonio, Foruak, Alava Jenerala, Dato, Florida eta San Antonio.
Biasteriko bandak S. Cristobal eta Adurtza auzoetan ihardungo du.
Lantziegoko bandak Arana eta Santa Luzia auzoetan.

### 10etan

**Mendizorrotzako aparkalekuan:**
Andra Mari Zuria 38.saria- Gasteizko Txirrindulari Elkartea.
**Foruen Plazan:**
Arabako boloen lehiaketa. Erakustaldia.

### 10,30etan

**San Migel parrokian:**
Meza, bertan izango da Gasteizko udalbatzarra.

### 11etatik ordu bietara

**Foruen plazan:**
Andra Mari Zuria saria: eskupilota.
**Foruen plazan:**
Andra Mari Zuria saria: aizkolariak.

## Eguerdian

### 12etan

Erraldoi eta buruhandien konpartsa Andra Mari Zuriaren plazan, Zapaterian, Arriagako atean, Ahate-iturrin, Jesusen Zerbitzarien kalean, Diputazio kalean eta Enparantza Berrian barrena ibiliko da, gaitajole bandekin batera: Indarra, Erletxo, Eltziego, Ezberdinak, Zurraldi eta Gufa.
Gargantua Diputazio plazan egongo da.
**Arkako plazan:**
Pailazoak: Donosti anaiak.

### 12,30etan

**Floridako parkeko kioskoan:**
Udal Musika Bandaren kontzertua.
**Peñafloridako Kontearen plazan:**
Ertzaintzaren Musika Bandaren kontzertua.

### Ordu batean

**Amarika plazan:**
Txotxongiloak, Bihar taldearen eskutik.

**Zezen plazan:**
Abonuko lehenengo zezenketa: Javer Perez Taberneroren abeletxeko zezenak, Miguel Baez "Litri", Jesulín de Ubrique eta Juan Mora zezenketarientzat.
**Abendañoko zirkuituan:**
Txirrindulari Eskolen bilera (Aranako Kluba).

### 6,30etan

**Floridako parkeko kioskoan:**
Haurrentzako dantza, Azkona

### 9etan

**Matxete plazan:**
Dantza plazan: Erako dantza eta Txulalai.

## Gauez.

### 11etan

**Arriagako San Juan parkean:**
1. Su artifizialak, Valecea pirotekniaren eskutik.
**Matxete plazan:**
Amets taldearen kantaldia.



**Matxete plazan:**
Trikitixa: Gasteizko Trikitixa Eskola.

### 1,30etan

**Matxete plazan:**
Bertsolariak: Iratxe Ibarra, Oihane Perea, Dani Kastaño eta Iñigo Gojenola.
Arratsaldez.

### 4,30etan

**Olabe pilotalekuan, Beti-Jai (Mendizorrotza):**
Andra Mari Zuria zesta punta saria (finalerdiak).

### 5etan

**Enparantza Berritik zezen plazara:**
Blusen ibilaldia.

### 6etan

**Vicente Goikoetxea kalean:**
Nafarroako jotak, Tafalla canta-ren eskutik.

taldearekin.
**Matxete plazan:**
Biasteriko banda.
**Postetxe plazan:**
Lantziegoko banda.

### 7etan

**Amarika plazan**
Jazza, Goialde Semperena-ren eskutik.
**Pradoko parkean:**
Dantzaldia, Simba orkestraren eskutik.

### 7,30etan

**Matxete plazan:**
Errenteriako Ereintza dantza taldea.
**Peñafloridako Kontearen plazan:**
Dantzaldia, Anagrama taldearen eskutik.

### 8,30etan

**Zezen plazatik Enparantza Berrira:**
Blusen itzulera.

### 11,30etan

**Olagibel kalean:**
Zezensuzkoa eta musika-animazioa, Otsadar eta Deiadar txarangekin.
**Peñafloridako Kontearen plazan:**
Gaujaia, Anagrama taldearekin.
**Arkako plazan:**
Gaujaia, Acuarium orkestrarekin.

### 12etan

**Foruen plazan:**
Tam Tam Go taldearen kontzertua.

### 12,30etan

**Enparantza Berrian:**
Janio Marti orkestra.

### 11,30etatik goizeko 2,30etara

Musika kalean, Otsadar eta Deiadar txarangekin.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ABUZTUAK 6 OSTIRALA

## Goizez

**10etan**

**ENPARANTZA PLAZAN:**
Dianak, Udal Musika Bandak, Udal Txistulari Bandak, Aldundiko Txistulari Bandak, Biasteriko Bandak, Lantziegoko Bandak eta gaitajole bandek interpretaturik.
Ondoren, Udal Musika Bandak ibilaldia burutuko du kale hauetan barrena: Posta, Diputazioa, Samaniego, Ricardo Buesa, Antso Jakituna, Lovaina, Madalena, Becerro Bengoa eta San Prudentzio.
Biasteriko bandak Abetxuko auzoan ihardungo du.
Lantziegoko bandak Babesgabeen auzoan.

**FORUEN PLAZAN:**
Andra Mari Zuria saria: bolo erakustaldia.

**11etan**

**ZEZEN PLAZAN:**
Zekorrak.

**11etatik ordu bietara.**

**FORU PLAZAN:**
Andra Mari Zuria saria: aizkolariak, kintopekoak eta nagusiak.
